

# Autonomoak langabezia kobratzen hasiko dira

Langile autonomoak krisiak kaltetuenetakoak dira eta, orain arte langabezia saria jasotzeko aukerarik sekula izan ez badute ere, sei hilabeterainokoa kobratu ahal izango dute 2011tik aurrera. Horretarako, adituek egindako proposamena onartu behar dute.

DANIEL UDALAITZ

AUTONOMOEN SEKTO-REAK hiru milioi pertsona inguru biltzen ditu Espainiar Estatuan, hamarka mila batzuk Hego Euskal Herrian, eta autonomoek 2011tik aurrera sei hilabeterainoko langabezia kobratzeko aukera izan dezakete, aztertzen ari diren lege-proiektuak dienez. Lehen hiruhileko honetan Espainiako Gobernuak eztabaidatu beharko du, eta uda baino lehen lege-proiekturako izapideak egin. Hasierako proposamenaren arabera, gutxienez urtebetez hileko 26,25 euro kotizatu beharko dituzte, lehendik ordaintzen dutenaz gain, eta, hala, 583 euroko gutxieneko saria jasoko lukete. Gehienez sei hilabeteko babesa eskuratuko dute. Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean daudenek bi urterainokoa dute. Azkenean proposamena onartzen bada, zalantzarik gabe laguntza ona izango da krisialdi finantzario, ekonomiko eta industrialek beti kalte handia egiten dioten sektore horrentzat.

Kontuan izan behar da Hego Euskal Herrian ez dela Gizarte Segurantzaren eskumenik, ez EAEn ez Nafarroan. Ondorioz, Gizarte Segurantzarekin zerikusia duen guztia, hala nola kotizazioa eta langabe-



MIKEL GARCIA

**Autonomoen elkarte eta gizarte eragileak aztertzen ari dira autonomoek langabezia kobratzeko proposamena. Oraingoz balorazio baikorra egin dute.**

zia-laguntzak, Espainiako Gobernuaren mende daude. Halaber, Gizarte Segurantzari lotutako edozein gai gizarte eragileekin negoziatzeko orduan, estatuko sindikatuak edo elkarteak lehenesten dira. Hortaz, Hego Euskal Herrian nagusi diren sindikatu abertzaleek ezin dituzte gai horiek Espainiako Gobernuarekin negoziatu.

## Lege-proiektua tramitatzeko proposamena

Hauexek dira autonomoen langabezia arautzeko proposamena aurrera atera dadin eman beharreko urratsak. Lehenik, langile autonomoen

egoera hori arautzeko beharra 2007ko ekaineko Langile Autonomoen Estatutuan jaso zuten. Bigarrenik, katedradunek, ekonomialariek eta Espainiako Gobernuko hainbat kabinetetako kideek osatutako adituen batzordeak 160 orrialdeko dokumentua landu eta Espainiako Gobernuari igorri dio. Dokumentu horretan langile autonomoen langabezia arautuko duen legea garatzeko proposamena egiten da. Hirugarrenik, aurtengo lehen hiruhilekoan Espainiako

Gobernua adituen batzordearekin bilduko da dokumentu hori eztabaidatzeko. Erantzuna baiezkoa bada, proposamena datorren uda baino lehen irits liteke Diputatuen Kongresura, lege-proiektu gisa. Legea 2010ean ezarriko dela aurreikusten dute. Gutxienez 12 hilabetetan kotizatze baldintza onartuz gero, langile autonomoak 2011tik aurrera has litezke langabezia kobratzen.

## Nork eskura dezake?

Adituen proposamenaren arabera, bi urtetako diru-sarrerekiko -jarduerako lehen urtea kontuan izan gabe- %30etik gorako galeren

## 220.000 autonomo

Hego Euskal Herrian 220.000 autonomo daude, 180.000 EAEn eta 40.000 Nafarroan. Iaz urtarri-  
la eta iraila artean egunero 0300 autonomok baino gehiagok itxi zuten negozioa Espainiar Estatuan, Langile Autonomoen Federakuntzaren datuen arabera.

### Kotizatzeari utzi diote

- Espainiar Estatuan: 32.720 autonomok.
- Katalunian: 7.944 autonomok.
- Valentzian: 8.035ek.
- Hego Euskal Herrian: 3.138k. EAEn: 1.997k eta Nafarroan: 1.141ek.

### Sektore kaltetuenak

Eraikuntza, merkataritza, industria, hezkuntza eta garraioa.

### Espainiar Estatuko erkidegoetan autonomo galera

- Errioxa: %2,6.
- Nafarroa: %2,3.
- Valentzia: %2,2.
- Murtzia: %1,9.
- Katalunia: %1,4.
- Aragoi, Kanariar Uharteak eta Galizia: %1,2.
- Bi Gaztelak: %1,1.
- Asturias eta EAE: %1.
- Andaluzia: %0,7.
- Kantabria eta Madril: %0,4.

ondoren, halaberrez jarduera eten duten autonomoek eskuratu ahal izango dute langabezia saria. Halaber, judizialki eskatutako %50etik gorako zorrak dituztenek nahiz hartzekodunen lehiaketan deklaraturakoek izango dute aukera. Halaber, lizentzia administratiboa galdutakoek –falten eraginez ez bada– ere langabezia saria jaso ahal izango dute. Azkenik, genero indarkeriaren biktimek edota bezero nagusiak galdu dituztenek ere langabezia kobra dezakete.

Saria jaso ahal izateko, gutxienez 12 hilabeteko kotizazioa jasotzen du adituen proposamenak. Babesaren iraupena kotizazioaren iraupenaren arabera izango litzateke. Hala, kotizazioa 12 eta 17 hilabete artekoa

bada, bi hilabeteko saria eskuratu ahal izango da; 18 eta 23 hilabete artekoa izanik, hiru hilabetetan kobratuko da; 24 eta 29 artekoa bada, lau hilabetetan; 30 eta 35 arte-

### Autonomoek gutxienerako saria, 583 eurokoa, lortzeko bi urtez kotizatu beharko dute eta bi hilabeteko langabezia izango dute

koa bada, bost hilabetetan; eta 36 hilabetetik gora kotizatuz gero, gehieneko sei hilabeteak eskuratu ahal izango dira.

Adituen batzordearen proposamenak autonomoak bere kotizazio-

basearen %3,15 eman dezala aurreikusten du. Horren truke, kotizazio-basearen %70 jasoko lukete, jarduerareta etenez gero. Langile Autonomoen Erregimen Bereziak ezarritako gutxienerako basean, hau da, 833,40 eurotan daudenek –eta autonomoen artean ohikoena dela dirudi– hileko 26,25 euro ordainduko litzukete –egun Gizarte Segurantzari egiten dioten ekarpenari erantsi beharrekoak– eta 583,38 euroko saria jaso ahal izango lukete.

### Gizarte eragileak baikor

Autonomoen Elkarteek eta gizarte eragileek joan den abenduan jaso zuten adituek langabezia saria sektorean arautzeko landu duten dokumentua. Orditik dokumentua aztertzen ari dira eta lehen balorazioa baikorra izan da, behar diren ñabardurak eginda, historikoa den bereizketa ezabatzen lagunduko duela uste dutelako. Bai ATAk (Langile Autonomoen Federakuntza) bai UPTAk (UGTri lotutako autonomoen federakuntza), positiboki balioetsi dute proposamena, hainbat zehaztapen eskatu arren.

Horrenbestez, dokumentuan lehen aldiz esaten da autonomoek erretiroa aurreratu dezaketela, gehieneko sei hilabete lehenago jubilatu daitezkeela. Bada, UPTAko idazkari nagusi Sebastián Reynaren aburuz, “epe horrek luzeago beharko luke”, bereziki hainbat kolektibori dagokionez. ATAko presidente Lorenzo Amorren iritziz, aldiz, egungo egoeran “lehen urtean eskatzen den hamabi urteko kotizazio epea asko murriztea eska liteke”. ■

